

MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

OPOSIZIO-LEHIAKETA BUKATU ONDOREN

ALDI BATERAKO KONTRATAZIO-ZERRENDAN EGOTEARI BURUZ

Zein araudik erregulatzen ditu irakasleak aldi baterako kontratatzeko zerrendak?

Hezkuntzako kontseilariaren [apirilaren 8ko 37/2020 Foru Agindu](#)aren bidez onetsi ziren Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuan aldi baterako kontratuekin irakasle lanpostuetan aritu nahi duten izangaien zerrendak kudeatzeko arauak.

Hautapen prozesuari eta aldi baterako kontratazio-zerrendetan sartzeari dagokienez, zein artikulua dira garrantzitsuenak?

Hauek dira artikulurik garrantzitsuenak:

- 3. artikulua. Aldi baterako kontratazioerako izangaien zerrendak.
- 4. artikulua. Lanposturik gabeko izangai gaitutuen zerrenda.
- 5. artikulua. Aldi baterako kontratazioerako izangaien zerrenda orokorra.
- 6. artikulua. Lanposturik gabeko izangai gaitutuen zerrendetan eta aldi baterako kontratazioerako zerrenda orokorrean mantentzea.
- 7. artikulua. Aldi baterako kontratazioerako izangaien berariazko zerrendak.
- Hirugarren xedapen gehigarria. Foru agindu honen I. eranskinean agertzen diren titulazio baldintzak eguneratzea.
- Hirugarren xedapen iragankorra. Kontratazio zerrendetan jarraitzea foru agindu honen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- I. eranskina
- II. eranskina

Ez nago inongo zerrendetan; oposizio-lehiaketara aurkezten banaiz, zerrendetan geldituko naiz?

Aldi baterako kontratazio-zerrendetan sartuta ez dauden eta oposizio-lehiaketan lehen aldiz parte hartzen duten izangaiak zerrenda orokorrean sartuko dira:

- Lehiatzen den espezialitatean **eskatutako titulazioa izanez** gero: (ikus [apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskina](#)), aski da lehendabiziko probaren bi zatietako batean (A eta B zatiak) nota positiboa lortzea (zero baino puntuazio handiagoa).
- **Espezialitateerako eskatzen den titulaziorik ez badago**: beharrezkoa da oposizioa gaitutzea (gutxienez 5 puntu eskuratu behar dira lehen eta bigarren proban).

Oposizioan deitutako espezialitate eta hizkuntza bateko zerrenda espezifikoetan edo masterrik gabeko zerrendetan nago. Oposizio-lehiaketara aurkezten ez banaiz, zerrenda horietatik kanpo utziko naute?

EZ. Oposizio-lehiaketak ez die eragiten zerrenda espezifikoei edo masterrik gabeko zerrendei. Zerrenda horietako izangaiek, oposizio-lehiaketara aurkezten ez badira ere, bertan duten posizioari eutsiko diote, espediente akademikoaren batez besteko notaren arabera hurrenkeran.

Oposizioan deitutako espezialitate eta hizkuntza bateko zerrenda espezifikoetan nago. Oposizio-lehiaketa bukatzean pasa naiteke zerrenda orokorrera?

BAI. Horretarako oposizio-lehiaketan parte hartu behar duzu eta, gutxienez, puntuazio positiboa lortu (zero baino puntuazio handiagoa) lehendabiziko probako zatiren batean (A eta B zatiak).

Deitu gabeko espezialitate baten zerrenda orokorrean nago. Horrek badu eraginik oposizio-lehiaketan?

EZ. Oposizio-lehiaketan deitu gabeko espezialitate eta hizkuntzetako zerrenda orokorrek ez dute eraginik izanen oposizio-lehiaketan.

Aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrenda orokorra.

Zein kasutan jarraitzen dut oposizio-lehiaketan deitutako espezialitate baten zerrenda orokorrean, ez banaiz bertara aurkezten?

Apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren arabera, bi kasu daude:

- Oposizio-lehiaketa deitu den ikasturtean, izangaiak gutxienez kontratu bat sinatua izatea deialdiko espezialitate eta hizkuntzetako batean, betiere kontratu hori amaitzean pertsona horrek lanposturik gabeko gaituen zerrendan edo espezialitate eta hizkuntza horretako zerrenda orokorrean jarraitzen badu.
- Dagokion kidegoan, espezialitatean eta hizkuntzan sartzeko Hezkuntza Departamentuak egindako azken hiru deialdietako edozeinetan parte hartu izatea, eta lehendabiziko probako zatiren batean (A eta B zatiak) gutxienez puntuazio positiboa lortu izatea (zero baino puntuazio handiagoa).

Oposizio-lehiaketan deitutako espezialitate eta hizkuntzen hainbat zerrendaren zerrenda orokorretan nagoela, denetara aurkeztu behar dut zerrendetan segitzeko?

EZ. Aski da espezialitate batera aurkeztea eta, gutxienez, nota positiboa lortzea (0 baino handiagoa) lehendabiziko probaren zati batean (A eta B zatiak).

Nola kalkulatu da zerrenda orokorra berrantolatzeko nota?

Zerrenda orokorra berrantolatzeko nota eta oposizioaren baremoaren nota ez dira berberak. [Apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren II. eranskinean](#) xedatutakoaren arabera kalkulatu da nota.

II. ERANSKINA

Merezimenduen baremoa, zerrenda orokorra eratzeko eta berrantolatzeko

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK								
I. ATALA.–IRAKASLE LANETAN EMANDAKO ZERBITZUAK (10,000 puntu gehienez). Gehienez hamar urte hartuko dira kontuan, eta haietako bakoitza hurrengo azpiataletako bakar batean baloratuko da. 1.1. Izangaiaren helburu den kidegoko espezialitateetan, ikastetxe publikoetan, irakasle lanean emandako urte bakoitzeko: Azpiatal honetan aipatzen diren lanpostuetan emandako hilabete bakoitzeko edo urteko zatiki bakoitzeko: 0,0833 puntu.	1,000 puntu								
1.2. Izangaiaren helburu den kidegoaz besteko kidegoetako espezialitateetan, ikastetxe publikoetan, irakasle lanean emandako urte bakoitzeko: Azpiatal honetan aipatzen diren lanpostuetan emandako hilabete bakoitzeko edo urteko zatiki bakoitzeko: 0,0416 puntu.	0,500 puntu								
1.3. Izangaiaren helburu den kidegoko hezkuntza maila edo etapa bereko espezialitateetan, beste ikastetxe batzuetan, irakasle lanean emandako urte bakoitzeko: Azpiatal honetan aipatzen diren lanpostuetan emandako hilabete bakoitzeko edo urteko zatiki bakoitzeko: 0,0416 puntu.	0,500 puntu								
1.4. Izangaiaren helburu den kidegoko hezkuntza maila edo etapa bera ez den espezialitateetan, beste ikastetxe batzuetan, irakasle lanean emandako urte bakoitzeko: Azpiatal honetan aipatzen diren lanpostuetan emandako hilabete bakoitzeko edo urteko zatiki bakoitzeko: 0,0208 puntu.	0,250 puntu								
II. ATALA.–PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA (gehienez ere 5,000 puntu). Atal honetan honako merezimendu hauek hartuko dira kontuan, eta sarrerako hautapen prozedurako deialdiaren arabera baloratuko dira: 2.1. Alegatutako tituluaren espediente akademikoa: Azpiatal honetan, bakar-bakarrik baloratuko da behar den kidegoan sartzeko orokorki eskatzen den titulazio mailaren arabera izangaiak alegatzen duen tituluaren ikasketa-espedientearen batez besteko nota, honela kalkulatu: <table style="margin-left: auto; margin-right: auto;"> <tr> <td>Otik 10erako eskala</td> <td>Otik 4rako eskala</td> </tr> <tr> <td>6tik 6,99ra</td> <td>1,5etik 1,99ra</td> </tr> <tr> <td>7tik 8,49ra</td> <td>2tik 2,74ra</td> </tr> <tr> <td>8,5etik 10era</td> <td>2,75etik 4ra</td> </tr> </table>	Otik 10erako eskala	Otik 4rako eskala	6tik 6,99ra	1,5etik 1,99ra	7tik 8,49ra	2tik 2,74ra	8,5etik 10era	2,75etik 4ra	1,000 puntu 1,250 puntu 1,500 puntu
Otik 10erako eskala	Otik 4rako eskala								
6tik 6,99ra	1,5etik 1,99ra								
7tik 8,49ra	2tik 2,74ra								
8,5etik 10era	2,75etik 4ra								
2.2. Graduondokoak, doktoretza eta aparteko sariak: 2.2.1. Ikasketa aurreratuen ziurtagiri-diplomagatik (apirilaren 30eko 778/1998 Errege Dekretua), master titulu ofizialagatik (urtarrilaren 21eko 56/2005 Errege Dekretuaren arabera, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren arabera edo abuztuaren 5eko 1002/2010 Errege Dekretuaren arabera lortua), ikertzeko nahikotasunagatik edo beste edozein titulu baliokiderengatik, betiere titulu horiek irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko baldintza gisa eskatu ez badira:	1,000 puntu								
2.2.2. Doktore titulua izateagatik:	1,000 puntu								
2.2.3. Doktoretzan aparteko saria lortzeagatik:	0,500 puntu								
2.3. Unibertsitateko beste titulu batzuk: Unibertsitateko titulazio ofizialak, irakaskuntzako funtzio publikoan izatera orokorrekarekin sartzeko baldintza gisa alegatutakoez beste batzuk, honela baloratuko dira: 2.3.1. Lehen zikloko titulazioak: diplomadun, ingeniari tekniko edo arkitekto tekniko titulu bakoitzeko edo lege horien baliokide den titulu bakoitzeko, eta lizentzia, arkitektura edo ingeniariartzat bateko lehen zikloari dagozkion ikasketengatik:	1,000 puntu								
2.3.2. Bigarren zikloko titulak: lizentzien, ingeniariaren, arkitekturen edo unibertsitateko gradudun titulu ofizialen bigarren zikloko ikasketengatik edo lege horien baliokide diren tituluengatik:	1,000 puntu								
2.4. Araubide bereziko irakaskuntzetako eta berariazko lanbide heziketako titulazioak: Hizkuntza eskola ofizialek, musikako kontserbatorio profesionalek eta goi mailakoek eta arte eskolek ematen dituzten araubide bereziko irakaskuntzen titulazioak, baita berariazko lanbide heziketakoak ere, ondoren aipatzen denari jarraituz baloratuko dira, baldin eta irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko baldintza gisa alegatu ez badira edo alegatutako titulua lortzeko ezinbestekoak izan ez badira: a) Musikako edo Dantzako titulu profesional bakoitzeko: b) Hizkuntza eskola ofizialek emandako maila aurreratuko ziurtagiri bakoitzeko: c) Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi mailako teknikari titulu bakoitzeko: d) Lanbide Heziketako goi mailako teknikari titulu bakoitzeko: e) Goi mailako kirol teknikari titulu bakoitzeko:	0,500 puntu 0,500 puntu 0,200 puntu 0,200 puntu 0,200 puntu								
III. ATALA.–BESTE MEREZIMENDU BATZUK (gehienez ere 2,000 puntu). Sarrerako hautapen prozedurako deialdian ezarritakoak izan dira atal honetan baloratu beharreko merezimenduak.									
IV. ATALA.–OPOSIZIOALDIKO NOTA. Atal honetan baloratuko dira oposizioaldiko bi probetan lortutako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa.									
Merezimendu baremoaren xedapen osagarria: Baremoan aurreikusitako atalak bakar-bakarrik aplikatuko zaizkio izangaiak epe barnean aurkeztutako merezimenduei, hots, zerrenda orokorra eratzeko erabiltzen diren sarrerako hautapen prozedurarako eskabideak aurkezteko epean aurkeztutakoei. I. ataleko azpiataletako puntuazioak (Irakasle lanetan emandako zerbitzuak) % 50 handituko da baldin irakasle lana Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioan egin bada.									